

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AINGURAK ETA AZPIEGITURA ERAMAILEA MUNTATZEA FATXADA TRANSAIREZTATUETARAKO	Iraupena	80
		Berariazkoa	
Kodea	UF1115		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harri naturala		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harri naturala eraikinetan jartzea	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Fatxada transaireztatuak muntatzea	Iraupena	230
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Fatxada transaireztatuaren lanak eta zuinketa prestatzea	Iraupena	50
	Fatxada transaireztatuaren estaldurak muntatzea		40
	Lan bereziak eta errematerakoak fatxada transaireztatuetan		60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1377_2 FATXADA TRANSAIREZTATUAK MUNTATZEA gaitasun-ataleko LB5 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Aingurak euskarriari finkatzea fatxada transaireztatuaren muntaketarako, ainguren fabrikatzailearen argibide teknikoak jarraituz eta dokumentazio teknikoa interpretatuz.

E1.1 Euskarriak ainguraketa-azpisistema batean izan behar dituen ezaugarriak ezagutzea geometriari (nibelazioa, lautasuna eta gainazalaren erregularitatea), erresistentziari, ahalmenari eta kontserbazio-egoerari dagokienez, ainguraketa-azpisistemaren finkapen egokia lortzeko.

E1.2 Euskarri finkatzeko elementuak instalatzeko prozedurak ezartzea, kalitate- eta segurtasun-irizpideak ezagutuz, baita horiek jartzerakoan sor daitezkeen arazo eta akats nagusiak, kausak eta eraginak ere.

E1.3 Segurtasuneko eta ingurumena babesteko neurriak aplikatzea aingurak muntatzeko lanak egiten diren bitartean.

E1.4 Dagoeneko zuinkatuta dagoen fatxada transaireztatu bat muntatzeko behar bezala ezaugarritutako kasu praktiko batean, eta obra-planoetan eta ainguren fabrikatzailearen argibide teknikoetan oinarrituz:

- Aingurak egiaztatzea.
- Euskarria egiaztatzea.
- Finkapen-elementuak euskarrian jartzea zuinketaren erreferentzietara jarraituz.
- Norbera babesteko ekipamenduak eta babes kolektiboko neurriak erabiltzea.
- Ingurumena babesteko neurriak errespetatzea.

A2: Ainguraketa-azpisistema instalatzea fatxada transaireztatuaren muntaketarako, ainguren fabrikatzailearen argibide teknikoak jarraituz eta dokumentazio teknikoa interpretatuz.

E1.2.1 Dauden ainguraketaren azpiegiturak edo gorputza muntatzeko prozedura nagusiak deskribatzea, kalitate- eta segurtasun-irizpideak ezagutuz, baita horiek jartzerakoan sor daitezkeen arazo eta akats nagusiak, kausak eta eraginak ere.

E1.2.2 Estutze-momentu desberdinak ezagutzea euspen-elementuen arabera.

E1.2.3 Profilak finkatzeko eta ebakitzeko erabilitako baliabide mekaniko nagusiak aipatzea, baita horiek erabiltzeko irizpideak eta hartu beharreko segurtasun-neurriak ere.

E1.2.4 Segurtasuneko eta ingurumena babesteko neurriak aplikatzea ainguraketa-azpisistema muntatzeko lanak egiten diren bitartean.

E1.2.5 Dagoeneko zuinkatuta dagoen fatxada transaireztatu bat muntatzeko behar bezala ezaugarritutako kasu praktiko batean, eta obra-planoetan eta ainguren fabrikatzailearen argibide teknikoetan oinarrituz:

- Aingurak egiaztatzea.
- Euskarria egiaztatzea.
- Finkapen-elementuak euskarrian jartzea zuinketaren erreferentzietara jarraituz.
- Ainguraketaren azpisistema edo gorputza finkapen-elementuen gainean jartzea.
- Egindako finkapenen erresistentzia eta kalitatea egiaztatzea.
- Norbera babesteko ekipamenduak eta babes kolektiboko neurriak erabiltzea.
- Ingurumena babesteko neurriak errespetatzea.

Edukiak:

1. Ainguraketa-azpisistema euskarri finkatzea.

- Euskarrira finkatzeko elementuak instalatzea: sistema puntualak eta profilekin.
- Prozesu operatiboa:
 - Ainguraketak egiaztatzea.
 - Euskarria egiaztatzea.
 - Euskarrira finkatzeko elementua jasotzea.
 - Ainguraketa euskarrira finkatzea.
 - Lanen egiaztapena: posizioa, baldintza mekanikoak, erresistentzia.
- Ekipamenduak, erremintak eta materialak. Erabilera.
- Segurtasun-arauak Egiaztapenak. Babes indibidual eta kolektiboko ekipamenduak erabiltzea.
- Kalitate-irizpideak. Instalazio-arazoak eta -akatsak: kausak eta efektuak.

2. Azpiegitura eramailea muntatzea.

- Prozesu operatiboa:
 - Azpiegituraren profilen elementuak ebakitzea.
 - Azpiegitura eramailea ainguraketen gainean instalatzea.
 - Plomatzea, nibelatzea. Dilatazioetarako espazioa.
 - Lanen egiaztapena: posizioa, baldintza mekanikoak, erresistentzia.

3. Ekipamenduen, erreminten eta materialen erabilera.

- Ekipamenduak, erremintak eta materialak. Erabilera.
- Segurtasun-arauak Egiaztapenak. Babes indibidual eta kolektiboko ekipamenduak erabiltzea.
- Kalitate-irizpideak. Instalazio-arazoak eta -akatsak: kausak eta efektuak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harri naturala eraikinetan jartzea